Antsoaingo Udalaren informazio aldizkaria Boletín de información Municipal de Ansoáin

# BIM
## Antsoain Ansoáin

Abendua
Diciembre
2016





¡Feliz Navidad!
Eguberri on!















**Argitaratzailea:** Antsoaingo udala. **Erredakzio Kontseilua:** Maria Olaiz, Arantxa Gambra, Marco Alvarez, Patxi Leuza. **Erredatzailea:** Imagen Gráfica. **Ale kopurua:** 4500 ale. **Doako banaketa.** **Edita:** Ayuntamiento de Ansoain. **Consejo de Redacción:** Maria Olaiz, Arantxa Gambra, Marco Alvarez, Patxi Leuza. **Realiza:** Imagen Gráfica. **Tirada:** 4500 ejemplares. **Difusión gratuita.**

*(Hurrengo aldizkaria: 2017ko otsaila - Próximo BIM: febrero 2017)*

## 21 TOKIKO AGENDA/ BERDINTASUN ZERBITZUA

### ANTSOAIN, NAFARROAKO PRAKTIKA ONEN SARIA

Azaroaren 13an, Antsoainek Nafarroako Garapen Iraunkorraren Praktika Onen Sariari harrera egiteaz gain, saria jasoko du baratze ekosozialen proiektuagatik. Aurreko aldizkarian eman genizuen egitasmoaren berri. Zorionak Antsoain!

Beste albiste batzuk:

Duela gutxi ospatu genuen azaroaren 25a. Leloa, “Herritargo konprometitu baten alde, emakumeenganako indarkeriaren kontra”. Antsoainek indarkeria sexista gaitzesten duela azpimarratu nahi du, gaur eta urteko egun guztietan; eta lan egiten jarraituko duela, gure gizarte patriarkalean emakumeek oraindik ere bizi dituzten desberdintasunekin eta diskriminazioekin bukatzeko. Elkartasuna ere adierazi nahi die Antsoainek erasoak jasan edo hil dituzten emakumeei, indarkeria sexista bortitzenaren biktimei, eta gure babesa helarazi nahi diegu emakume horiei eta euren familiei. Abenduaren 1eko 19:00etan (astelehena) hitzaldi bat izanen da Gizartetxean, intentsitate baxu eta ertaineko eraso sexistei buruz hitz egiteko.

Azkenik, festak gertu ditugunez, erosketak modu arduratsuan egitera animatu nahi zaituztegu, kontsumismoa saihestuz, tokiko komertzioa ahal den neurrian bultzatuz, eta jostailuak erosiz gero, indarkeria edo sexismoa baztertuz; seguru asmatuko duzuela.

Argitaratzailea: Antsoaingo Udala · Edita: Ayuntamiento de Ansoáin · DL/LG: NA 942-2016

## AGENDA LOCAL 21 / SERVICIO DE IGUALDAD

### ANSOÁIN PREMIO DE BUENAS PRÁCTICAS DE NAVARRA

El próximo día 13, Ansoáin acogerá la entrega y recibirá el Premio de Buenas Prácticas de Desarrollo Sostenible de Navarra por el proyecto de huertas ecosociales del que os hablamos en el anterior BIM. ¡Felicidades Ansoáin!

Otras noticias:

Recién celebrado el 25 de noviembre con el lema “POR UNA CIUDADANÍA IMPLICADA CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES”, Ansoáin quiere insistir en mostrar, hoy y todos los días del año, su repulsa a la violencia sexista y seguir trabajando para acabar con las desigualdades y discriminaciones que afectan todavía a las mujeres en nuestra sociedad patriarcal. También quiere ser solidario con las mujeres agredidas o asesinadas, víctimas de la violencia sexista más extrema, transmitiendo todo nuestro apoyo para ellas y sus familias. El lunes 1 de diciembre, a las 19:00h se celebrará una charla sobre agresiones sexistas de baja y media intensidad en el Centro Cívico de Ansoáin.

Por último, con la cercanía de las fiestas, animaros a realizar compras responsables evitando el consumismo y fomentando en la medida de lo posible el comercio local. Y si compráis juguetes, evitad los violentos y los sexistas y seguro que acertaréis.

**www.ansoain.es**

**Sare sozialetan jarraitu**

**www.ansoain.es**

**Síguenos en las redes sociales**



### HERRITARRENTZAKO INFORMAZIOA

Ohiko Osoko Bilkurak hilabete bakoitzeko azken asteazkenean egiten dira, 18:00etan, Udaleko osoko bilkuren aretoan.

### INFORMACIÓN A LA CIUDADANÍA

Las sesiones del Pleno Ordinario se celebran los últimos miércoles de mes, a las 18:00 horas, en el salón de plenos del Ayuntamiento.

## EZKABA IKASTETXE PUBLIKOA

### BITARTEKARITZA, EZKABA ESKOLAREN BEREZITASUN BAT



Bitartekaritza ikasleen arteko arazoak, liskarrak edota gatazkak konpontzen laguntzeko sistema bat da. 6. mailako ikasle jakin batzuk, lau neska eta 4 mutil, gatazkak konpontzeko prozedura batzuen jakitun, bitartekari lanetan aritzen dira eta gatazkak dituzten ikaskideei lagundu egiten diete. Ikasturte honetan honako hauek dira bitartekariak: Asier Gutierrez, Iratxe Markina, Saioa Villanueva, Asier Murillo, Jon Argandoña, Iratxe Fernández, Amaia Hernández eta Oihan García. Beraiek diotenez, “Arazorik baduzue, zuei laguntzeko prest gaude”. Laguntza eskatzen ahal diete 3. mailatik gotiko ikaskideek, bai ahoz, bai idatziz; horretarako, egokitutako postontzietan fitxa bat bete behar dute. Lerro hauetatik eskertu nahi diegu neska-mutil hauei ikaskideen arteko harremanak hobetzeko egiten duten lana. Prozedura hau aurrera eramateko, adostoki bat dago ikastetxearen 1. solairuan.

Zalantzarik gabe, ikasleek asko eskertzen duten zerbitzu hau Ezkaba eskolaren bereizgarri bat da.

## COLEGIO PÚBLICO EZKABA

### SERVICIO DE MEDIACIÓN, ALGO QUE NOS DISTINGUE

El servicio de mediación o bitartekaritza es un sistema de ayuda a la resolución de las riñas, disputas o conflictos entre el alumnado. Los responsables son chicos y chicas de 6º curso, conocedores de procedimientos encaminados a ayudar en la resolución de conflictos entre compañeros/as. Durante este curso, los mediadores son Asier Gutierrez, Iratxe Markina, Saioa Villanueva, Asier Murillo, Jon Argandoña, Iratxe Fernández, Amaia Hernández y Oihan García. Como ellos dicen, “Si tienes algún problema, estamos dispuestos a ayudarte”. Los chicos y chicas a partir de 3º de Primaria pueden recurrir a ellos/as bien oralmente o bien por escrito, rellenando una ficha y depositándola en alguno de los buzones dispuestos para tal fin. Existe un espacio habilitado para llevar a cabo el proceso de mediación en la primera planta del colegio.

Desde estas líneas queremos agradecer el trabajo desarrolado por estos alumnos y alumnas, el cual constituye, sin lugar a dudas, un elemento muy positivo que nos distingue del resto de centros escolares.



## ANTSOAINGO UDAL MUSIKA ESKOLA

Honako saioekin ospatuko du Musika Eskolak hiruhilekoaren bukaera Antsoaingo Antzokian:

**Abenduak 14, asteazkena,** 16:00etatik 19:00etara MUSIKA HASTAPENEKO ate irekien jardunaldia.

**Abenduak 15, osteguna,** 18:00etan, haurren ABESBATZAren kontzertua; eta 19:30ean, TALDEen kontzertua (sarrerak, antzokiko atean hartu daitezke, kontzertuak hasi baino ordu erdi lehenago, bat bakoitzarentzat, etorrera ordenan eta lekua bete arte).

**Urtarrilaren 5eko EEMMen desfilea:** Musika Eskolako BANDAREN kolaborazioa.

## ESCUELA DE MÚSICA MUNICIPAL DE ANSOÁIN

La Escuela de Música celebrará el final del trimestre realizando las siguientes actuaciones en el Teatro de Ansoain:

**Miércoles 14 de diciembre,** de 16:00 a 19:00 h, jornada de puertas abiertas de INICIACIÓN MUSICAL.

**Jueves 15 de diciembre:** a las 18:00 h, concierto del CORO infantil; y a las 19:30 concierto de AGRUPACIONES (se podrán recoger entradas en la puerta del teatro, media hora antes de cada concierto, una por persona, en orden de llegada hasta completar aforo).

**Cabalgata de RRMM 5 de enero:** colaboración de la BANDA de la Escuela de Música.

## ANTSOAINGO GAZTELEKUA, HARROBI

“Azaroa Kultur Aroa”ren antolaketan parte hartu zuen Harrobik, euskarazko Bertsorapeko bi tailerrekin eta hip-hopeko masterclass batekin.

Drogen kontsumoaren prebentziorako tailer bat eskainiko dugu abenduan, eta, Gabonak direla aprobetxatuz, mozorroak egiteko tailer bat ere emanen dugu.

Bestetik, oroitarazi nahi dizuegu hilabete honetan hasi dela 2017ko urtarriletik martxora arteko ikastaroetan apuntatzeko epea. Izen-emate epea abenduaren 13tik 23ra izanen da; eta matrikulatzeko epea, abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra. Eta albiste berriak ditugu! Hip-hop, Zumba, GAP+tonofit, Yoga+mindfulness eta antzerkia (euskaraz) eskainiko ditugu.

Urtarrilean **“III. ZU BAI ARTISTA!”** lehiaketan izena eman ahalko duzuela aurreratzen dizuegu.

Informazio gehiago nahi izatekotan, Harrobi Gaztelekutik pasa zaitezkete, 948 142352 telefonora deitu edo e-mail bat bidali casajuventud@ansoain.es helbide elektronikora.

## CASA DE LA JUVENTUD, HARROBI

En noviembre Harrobi ha colaborado con el área de euskera en el ciclo de cultura, impartiendo un taller de bertsorap y una masterclass de hip-hop, ambos en euskara.

En diciembre, vamos a ofrecer un taller de prevención del consumo de drogas. Además aprovechando las navidades daremos un taller de creación de disfraces.

Por otro lado, recordaros que este mes se abren los plazos para apuntarse en los cursos de enero a marzo de 2017. Las fechas de preinscripción son del 13 al 23 de diciembre. Las fechas de inscripción son del 26 de diciembre al 4 de enero ¡Tenemos novedades! Los cursos propuestos son Hip hop, Zumba, GAP+tonofit, Yoga+mindulness e Iniciación al teatro (¡en euskera!)

Os adelantamos que en enero podréis inscribiros para el **“¡III. TÚ SÍ QUE MOLAS!”**

Para más información pasaros por la Casa de la Juventud, Harrobi, llamad al 948 142352 o por correo electrónico en la dirección casajuventud@ansoain.es.



HARROBI
Antsoaingo Gaztelekua
Casa de la Juventud de Ansoain

Para más información: Casa de la Juventud de Ansoain, Harrobi
C/Ezkaba 4 · 31013 Ansoáin - Teléfono 948 142 352
Informazio gehiago: Antsoaingo Gaztelekua, Harrobi.
Ezkaba kalea 4 · 31013 Antsoain – Telefonoa 948 142 352

casajuventud@ansoain.es

# PROGRAMACIÓN ENERO-MARZO 2017
# 2017KO URTARRILA-MARTXOA, PROGRAMAZIOA

| Actividad<br>Jarduera | Fechas<br>Datak | Días<br>Egunak | Horas<br>Orduak | Cuotas<br>Kuotak |
|---|---|---|---|---|
| **1.1**<br>**Hip-hop**<br>**Hip hopa** | 12 enero al 15 marzo<br>Urtarrilaren 12tik martxoaren 15era | Martes<br>Asteartea | 19:15 - 20:15 | Personas empadronadas/ erroldatuek: 13,00 €<br>No empad/ez erroldatuek: 19,50 € |
| **1.2**<br>**Zumba** | 13 enero al 16 marzo<br>Urtarrilaren 13tik martxoaren 16ra | Miércoles<br>Asteazkena | 20:00 - 21:00 | Personas empadronadas/ erroldatuek: 13,00 €<br>No empad/ez erroldatuek: 19,50 € |
| **1.3**<br>**GAP +**<br>**Tonofit** | 13 enero al 16 marzo<br>Urtarrilaren 14tik martxoaren 17ra | Jueves<br>Osteguna | 18:30 - 19:30 | Personas empadronadas/ erroldatuek: 13,00 €<br>No empad/ez erroldatuek: 19,50 € |
| **1.4**<br>**Yoga + Mindfulnes** | 12 enero al 15 marzo<br>Urtarrilaren 12tik Martxoaren 15era | Martes<br>Asteartea | 18:00 - 19:00 | Personas empadronadas/ erroldatuek: 13,00 €<br>No empad/ez erroldatuek: 19,50 € |
| **1.5**<br>**Iniciación al teatro en euskera**<br>**Antzerki hastapena euskaraz** | 11 enero al 14 marzo<br>Urtarrilaren 11tik martxoaren 14ra | Lunes<br>Astelehena | 19:00 – 20:00 | Personas empadronadas/ erroldatuek: 13,00 €<br>No empad/ez erroldatuek: 19,50 € |

**PREINSCRIPCIÓN /AURRE-INSKRIPZIOA:**
DÍAS/EPEA: Del 13 al 23 de diciembre / Abenduaren 13tik 23ra

**INSCRIPCIÓN/ INSKRIPZIOA:**
DÍAS/EPEA: Del 26 de diciembre al 4 de enero / Abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra.

## UDAL EUSKARA ZERBITZUA

Azaro interesgarria izan dugu Antsoainen, kultur ekitaldi askorekin eta euskaren inguruko zein euskarazko ezagutza bultzatzeko jarduerekin. Haurrei, gazteei, helduei eta guraso direnei egin zaie eskaintza, izan ere, aisiak garrantzi handia du ikasi eta bizi nahi ditugun hizkuntzentzat.



Orain, urtea bukatzear dagoen honetan, jaiegunak datoz, eta askotan jostailuak, irakurgaiak, pelikulak, antzerkiak eta abar aukeratzen hasten gara; lagunekin, lankideekin eta familiarekin elkartzen... Garai honek aukera ezin hobea eskaintzen digu hiztunen eta generoaren berdintasunari erreparatzeko, ingurumenari eta bertako komertzioari, eta, jakina, une horien epelean, euskarari tokia emateko.

www.katalogoa.eus

## SERVICIO DE EUSKERA MUNICIPAL

Un interesante noviembre llegaba a Ansoáin repleto de eventos culturales y actividades que nos han permitido saber más euskera y sobre el euskera. La oferta ha estado dirigida a público infantil, juvenil, adulto, a padres y a madres puesto que el ocio es muy relevante para los idiomas que queremos aprender y vivir.

Y ahora que estamos a punto de finalizar el año, llegan días festivos en los que en muchas ocasiones comenzamos a elegir juguetes, lecturas, obras de teatro, películas, etc. y a reunirnos con personas de nuestro entorno de amistades, trabajo, familiares… Esta época nos da la oportunidad de reparar en la igualdad de los y las hablantes, de género, el medio ambiente y el comercio local; y, cómo no, de ofrecerle un espacio al euskera al calor de esos momentos.

www.katalogoa.eus

**Urte Berri on denoi!**




**¡Feliz Año Nuevo!**

## UDALTZAINGOA

Urtarrilean zamalanetarako ordutegia aldatuko da, arratsaldeko ordu bata arte finkatuz.

Aldaketa horren berri emango zaie herritarrei abenduan, hainbat lekutan jarriko diren Alkatetza bandoekin eta zamalanetako seinaleetan ezarriko diren kartelen bidez. Ildo berean, Udaltzaingoak informazio hori zabaltzeko kanpaina egingo du abenduan.

Ordutegi hori luzatzeari esker, inguruko beste herriek daukaten ordutegiarekin berdinduko da Antsoaingoa, eta banaketa lanetan aritzen direnek beraien eginbeharretako aproposagoa den denbora-tartea izango dute.




## POLICÍA MUNICIPAL

En enero, se procederá a la ampliación del horario de carga y descarga de la localidad, que quedará establecido hasta las 13h.

Esta modificación se hará saber a la ciudadanía en diciembre mediante la colocación de bandos de Alcaldía en distintos puntos de la localidad, así como de letreros que se colocarán en las propias señales de carga y descarga. También en diciembre, Policía Municipal realizará una campaña informativa a este respecto.

Gracias a esta ampliación, el horario se igualará al que disponen otras localidades y las personas que se dedican al reparto de mercancías dispondrán de un horario más acorde a sus necesidades.

## 3 SÁBADO LARUNBATA

BANDA DE MÚSICA
MUSIKA BANDA

### DÍA DE NAVARRA
### NAFARROAREN EGUNA

60 min.

Teatro Ansoáin - 13:00 h.
Antsoaingo Antzokia - 13:00etan

BANDA DE AÑORBE "LOS TXAPARREROS" (Navarra / Nafarroa)



**Director: Wifredo Soler Pérez.** La "Banda de Añorbe los Txaparreros" actuará en el Teatro Ansoáin / Antsoaingo Antzokia con motivo de la celebración del Día de Navarra; conjuntamente el Gobierno de Navarra ha organizado conciertos de Bandas y Corales por toda la geografía Navarra.

**Zuzendaria: Wifredo Soler Pérez.** Añorbeko Los Txaparreros banda Antsoaingo Antzokian arituko da Nafarroako Egunaren karira. Izan ere, Nafarroako Gobernuak Nafarroa osoan antolatu ditu banda eta abesbatzen kontzertuak.

ENTRADA LIBRE
SARRERA DOAN

TODOS LOS PÚBLICOS
JENDE GUZTIARENTZAT

## 10 SÁBADO LARUNBATA

### ANTSOAINEN KANTUZ

Plaza Lapurbide · 12:00 h.
Lapurbide plazatik · 12:00etan

Antsoainen Kantuz desea ampliar el grupo. Por eso motivo invita a toda persona que quiera participar con el grupo. Los ensayos son los jueves a las 19:30 en el Centro Cívico de Ansoáin.

Antsoainen Kantuz jende bila dabil. Hori dela eta, taldea zabalik dago hartan parte hartu nahi duen jende guztiarentzat. Entseguak ostegunetan egiten dira, 19:30ean, Antsoaingo Gizarte Etxean.

FAMILIAR
FAMILIENTZAT

## 14 MIÉRCOLES ASTEAZKENA

CUENTA CUENTOS (en euskera)
IPUIN HONTALARIA (euskaraz)

### PONTXA ETA IPUIN-KUTXA

JAIONE URTASUN

Biblioteca · 12:00 h.
Liburutegia · 12:00etan

17:30 De 3 a 5 años
18:15 De 6 a 12 años
EXCLUSIVAMENTE PARA NIÑOS/AS

17.30ean, 3 eta 5 urte bitartekoentzat
18.15ean, 6 eta 12 urte bitartekoentzat
HAURRENTZAT BAIZIK EZ

ENTRADA LIBRE
SARRERA DOAN

SUBVENCIONA/DIRUEMAILEA:
Gobierno de Navarra | Nafarroako Gobernua
RED DE TEATROS DE NAVARRA | NAFARROAKO ANTZOKI SAREA
PROGRAMA ARTE Y CULTURA 2016
2016ko ARTE ETA KULTURA PROGRAMAZIOA

**VENTA DE ENTRADAS ▪ SARREREN SALMENTA**

TAQUILLA DEL TEATRO. Desde una hora y media antes del comienzo de cada espectáculo
ANTZOKIKO LEIHATILAN. Ikuskizunaren hasiera baino ordu eta erdi lehenago hasita.

TELEFONO 012 (Desde fuera de Navarra 948 012 012). Las entradas se recogen en la taquilla del teatro desde una hora y media antes del comienzo de cada espectáculo
012 TELEFONOAN (Nafarroatik kanpo 948 012 012). Sarrerak hartzen dira ikuskizun bakoitzaren hasiera baino ordu eta erdi lehenago hasita.

INTERNET · www.teatroansoain.es VENTA DE ENTRADAS. Con el justificante de compra por internet pasa directamente a la sala
INTERNET · www.teatroansoain.es SARREREN SALMENTA. Internet bidez egindako erosketaren egiaztagiria ekartzen baduzu, zuzenean aretora pasa zaitez.

# 17 SÁBADO LARUNBATA

MÚSICA
MUSIKA

## "Y LA JOTA NOS UNIÓ"

90 min.

Teatro Ansoáin - 19:00 h.
Antsoaingo Antzokia - 19:00etan

ROBERTO URRUTIA (Navarra / Nafarroa)




Presentación del último CD "Y la jota nos unió", a cargo de Roberto Urrutia y Josu Hernández. Os esperamos con un espectáculo muy-muy variado, con muchos artistas invitados; en donde se cantarán jotas, estampas navarras, temas en euskera, rancheras, cumbia, villancicos.......y muchas sorpresas más. Si eres de lo que miman los sentidos, la vista, el oído....... y además acariciáis al corazón, VENIR URGENTEMENTE.

"Y la jota nos unió" azken CDaren aurkezpena, Roberto Urrutia eta Josu Hernándezen eskutik. Zatozte ikuskizun askotariko hau ikustera, artista aunitz arituko baitira. Jotak, nafar kantuak, euskarazko abestiak, rantxerak, cumbia, Gabon-kantak eta beste emanen dira, dena sorpresaz beterik. Beraz, zentzumenak, ikusmena, entzumena... ongi zaintzen dituzten horietakoak bazarete, eta gainera, bihotza ere ferekatzen baduzue, ZATOZTE PREMIAZ.

TODOS LOS PÚBLICOS
JENDE GUZTIARENTZAT

Venta Anticipada
Aldez Aurreko Salmenta:
4,50 €

Venta en Taquilla
Salmenta Leihatilan:
5,50 €

# 18 DOMINGO IGANDEA

TEATRO AMATEUR
ANTZERKI AMATEURRA

## "PINOCHO"

55 min.

Teatro Ansoáin - 18:00 h.
Antsoaingo Antzokia - 18:00etan

LA MADEJAA (Pamplona / Iruña)




Un cuento: la historia del entrañable muñeco de madera que quería ser un niño de verdad. Un texto: Chris Baldwin reformula la narración y demuestra con ello el significado eterno de los cuentos. Una estética: la que hemos desarrollado, no sin licencias, pero con la intención de respetar tanto la fábula, como la propuesta del autor. Un texto infantil para un público sin edad que nos transporta a otros circos, otros bosques y otras ballenas... "diferentes espacios que harán reconocernos como el niño que somos o que algún día fuimos y la madre o el padre que somos o que algún día seremos, con una misión importante: sabernos educar mutuamente".

Ipuin bat: egiazko haurra izan nahi zuen zurezko panpina maitagarriaren istorioa. Testu bat: Chris Baldwinek narrazioa birsortu eta, horren bidez, ederki erakutsi du ipuinen esanahi betierekoa. Estetika bat: guk garatu dugun estetika hain zuzen, lizentziak hartuta, baina alegia bera eta egilearen proposamena errespetatzeko asmoz. Haurrendako testu bat da baina adinik gabeko publikoarentzat, beste zirku, beste baso eta beste balea batzuetara eramanen gaituen testua; "hainbat espaziotara eramanen gaitu, eta haietan agertuko zaigu gu garen haurra edo garai batean izan ginen haur hura, edota gaur egun garen edo egunen batean izanen garen ama edo aita, betiere eginkizun garrantzitsua dugula: elkar hezten jakitea".

FAMILIAR
FAMILIENTZAT

Venta Anticipada
Aldez Aurreko Salmenta:
4,00 €

Venta en Taquilla
Salmenta Leihatilan:
5,50 €



## DANTZAN IKASI NAHI AL DUZU? 18 URTE BAINO GEHIAGO AL DUZU? ¿TIENES MÁS DE 18 AÑOS? ¿QUIERES APRENDER A BAILAR?

¿Has observado que cada vez hay más gente, y no solo dantzaris, bailando músicas tradicionales? Ahora tienes una ocasión perfecta para aprender o practicar danzas de nuestro patrimonio cultural. ¡Anímate y ven a bailar con nosotr@s!

Ohartu zara gero eta jende gehiago euskal dantzak dantzatzen dabilela? Ez duzu zertan dantzaria izan behar, orain duzu aukera dantzak ikasi eta praktikatzeko. Anima zaitez eta etorri gurekin dantza egitera!

**Grupo de Danzas EGUZKI EKER Dantza Taldea: nagusia56@gmail.com · Tf. 658 509 946**

# 18

## DOMINGO IGANDEA

### CARTAS A MARI DOMINGI
### MARI DOMINGIRI GUTUNAK

**El 18 de diciembre**, llevaremos las cartas del Olentzero a Mari Domingi, a las 16,00 horas y a las 17,30 horas chocolatada, en el Plaza Rafael Alberti. En la noche de Nochebuena un curioso personaje se dispone a irrumpir entre la gente. Se trata de OLENTZERO, el carbonero de las montañas que una vez al año baja a las poblaciones de Euskal Herria para celebrar la NAVIDAD. Olentzero era en muchos pueblos un gigante que bajaba de la chimenea con la cara tiznada, los ojos rojos y el aspecto fiero. Con él se amenazaba a los niños traviesos. Hoy, los pequeños le consideran un gigante bueno, amigo de los niños a los que quiere y trae regalos en la noche de "Nochebuena".

**Abenduaren 18an**, Olentzerorendako gutunak Mari Domingiri eramanen dizkiogu, 16:00etan. Eta 17:30ean, txokolate-jana Rafael Alberti plazan. Gabon gauean pertsonaia bitxi bat jendartean sartuko da. OLENTZERO da, urtean behin mendietatik Euskal Herriko herrietara EGUBERRIAK ospatzera jaisten den ikazkina. Tximiniatik aurpegia belzturik jaisten zen erraldoia zen Olentzero, begi gorriak eta itxura zakarra zituena. Pertsonaia hori aipatzen zen haur bihurriak mehatxatzeko. Gaur egun, haurrek erraldoi zintzotzat hartzen dute Olentzero, eta lagun goxo horrek haurrak maite, eta opariak ekartzen dizkie Gabon gauean.

FAMILIAR
FAMILIENTZAT

# 22

## JUEVES OSTEGUNA

### ANIMACIÓN INFANTIL Y CHOCOLATADA COLEGIO EZKABA / HAUR ANIMAZIOA ETA TXOKOLATE JANA EZKABA IKASTETXEAN

Patio del Colegio Ezkaba · 16:00 h.

Ezkaba ikastetxeko jostalekuan · 16:00etan

FAMILIAR
FAMILIENTZAT

ENTRADA LIBRE
SARRERA DOAN

# 23

## VIERNES OSTIRALA

### "MANIATICS"

60 min.

PRIMERA FILA Y CENTRADO (Pamplona / Iruña)

Teatro Ansoáin - 20:00 h.
Antsoaingo Antzokia - 20:00etan

TEATRO AMATEUR
ANTZERKI AMATEURRA




Manías... ¿Quién no las tiene? Tics... ¿Quién no los padece? El humor nos ayuda a conocernos, a distanciarnos, y a... ¿curarnos? ¿Pero es que estamos locos? Ni sí, ni no. Quizá sólo entretenemos nuestro camino por la vida con desvaríos varios que nos ayudan a sentirnos importantes. O, al menos, diferentes. Tocados por un estigma especial. El de nuestras manías, el de nuestros tics. El de nuestros síntomas.

Maniak... Nork ez ote du maniarik? Tik-ak... Nork ez ote ditu halakoak sufritzen? Umorea lagungarria izanen zaigu gure burua ezagutzeko, urruntzeko, eta... sendatzeko ere bai? Baina eroturik gaude ala? Ez bai, ezta ez ere. Beharbada hainbat txorakeriarekin entretenitzen dugu bizitzan egiten dugun bidea, baina txorakeriok gure burua garrantzitsutzat sentitzen laguntzen digute. Edota, bestelakoak izaten, behintzat. Halako estigma berezi batek ukituak gaude. Gure manien estigma da; gure tik-en estigma. Gure sintomen estigma, alegia.

JUVENIL - ADULTO
GAZTE ETA HELDUENTZAT

Venta Anticipada
Aldez Aurreko Salmenta:
5,00 €

Venta en Taquilla
Salmenta Leihatilan:
6,00 €

# 24 SÁBADO LARUNBATA



## BIENVENIDA AL OLENTZERO
## ONGIETORRIA OLENTZERORI

FAMILIAR
FAMILIENTZAT

Puente variante (junto a las piscinas) · 18:30 h.

Ingurabideko zubia (igerilekuen ondoan) · 18:30ean

Este año desde la asociación de la Cabalgata de Reyes de Ansoain, queremos pedir ayuda a todos los vecinos de la localidad para preparar la Cabalgata de Reyes. Sí sabes usar un taladro, destornillador, coser, pintar....serás bien recibido!!!! Basta con que nos dejes tú nombre, apellidos y número de teléfono en la página de la Cabalgata: cabalgataansoain@gmail.com.

ANIMATE, TE ESPERAMOS. Muchas gracias. Eskerrik asko

Asociación Cabalgata de Reyes de Ansoain

Aurten, Antsoaingo Errege Kabalkadan ari garenok laguntza eskatu nahi dizuegu herriko auzokide guztiei Errege Kabalkada prestatzeko. Zulagailurik erabiltzen badakizu, edo josten, edo margotzen... pozik hartuko zaitugu!!!! Aski da zure izen-abizenak eta telefono-zenbakia gure e-postara bidaltzea: cabalgataansoain@gmail.com.

ANIMA ZAITEZ, ZAIN GAUZKAZU. Eskerrik asko

# Adelanto programación enero

# Urtarrileko programazioa, aurrerapena

**2 y/eta 3**

## LUNES Y MARTES ASTELEHENA ETA ASTEARTEA

### "ESCAPE"

55 min.

QUIERO TEATRO (Navarra / Nafarroa)

Teatro Ansoáin
18:00 primera sesión
20:00 segunda sesión

Antsoaingo Antzokia
18.00 1. emanaldia
20.00 2. emanaldia




**ESCAPE** es más que un espectáculo de baile, es una aventura apasionante que no te puedes perder. Cinco desconocidos son invitados a participar en un sorprendente juego que les ayudará a escapar de sus rutinas, cada uno se caracteriza por habilidades especiales, juntos deberán enfrentarse a las distintas pruebas, su baile será la herramienta y su astucia la estrategia pero... conseguirán todos superar los retos que se les plantean?

**ESCAPE** dantza-ikuskizunaz haratago doa, nahitaez ikusi beharko zenukeen abentura zirraragarria. Bost ezezagunek gonbidapena jasoko dute joko harrigarri batean aritzeko, eta jokoari esker, ihes eginen dute beren ohiko errutinetatik. Bakoitzak bere trebetasun bereziak ditu, eta elkarrekin probei aurre egin beharko diete; dantza izanen dute lanabes, eta abileziaz jokatuko dute, baina... lortuko al dute guztiek erronkak gainditzea?

ESPECTÁCULO DE BAILE MODERNO
DANTZA MODERNOA IKUSKIZUNA

JUVENIL - ADULTO
GAZTE ETA HELDUENTZAT

Venta Anticipada Aldez Aurreko Salmenta: 6,00 €
Venta en Taquilla Salmenta Leihatilan: 8,00 €

**4**

## MIÉRCOLES ASTEAZKENA

### ORQUESTA SINFONICA DEL TEATRO NACIONAL DE LA OPERA DE UCRANIA UKRAINAKO OPERAKO ANTZERKI NAZIONALAREN ORKESTRA SINFONIKOA

60 min.

Teatro Ansoáin - 20:00 h.
Antsoaingo Antzokia - 20:00etan

UNIÓN CULTURAL




**Director: Yuriy Bervetskiy.** La dirección de Yuri Bervestsky es un prestigio para la marca de la ciudad y de las entidades culturales y musicales de todo el mundo en las que se presenta. Para esta gira internacional ofrece un concierto con 22 integrantes, seleccionados entre los mejores músicos contemporáneos de la orquesta nacional de Ucrania, con cantante tenor y soprano, y un repertorio acorde al lugar y país con obras clásicas del repertorio navideño: polcas y valses de Strauss, y solos y duetos de los destacados interpretes líricos que acompañan a la orquesta, en una combinación lírica que crea un espectacular concierto de navidad.

**Zuzendariа: Yuriy Bervetskiy.** Yuri Bervestskyren zuzendaritzak omen handia ematen dio hiriaren markari, eta era berean, taldea aurkezten den mundu osoko kultur eta musika erakundeei. Nazioarteko bira honetan, 22 kide aukeratu ditu kontzertua emateko, guztiak ere Ukrainako orkestra nazionalaren musikari garaikiderik onenen artean aukeratutakoak, abeslari tenorea eta sopranoa barne. Errepertorioa, gainera, bat dator lekuarekin eta herrialdearekin, Eguberrietako lan klasikoak emateko: Straussen polkak eta baltsak, eta orkestrarekin batera doazen interprete liriko ospetsuen bakar saioak eta duetoak. Uztarketa liriko ederra da, eta emaitza, Eguberrietako kontzertu ikusgarria.

TODOS LOS PÚBLICOS
JENDE GUZTIARENTZAT

Venta Anticipada Aldez Aurreko Salmenta: 12,00 €

Venta en Taquilla Salmenta Leihatilan: 15,00 €